

Kiroldegia




SEAN DEMPSEY / AP

Futbola

Frantziaren lehenengo garaipena Wembleyn, Deschampsen 82. partiduan

Ez zuen inoiz Frantziako selekzioak Ingalaterrakoaren kontra irabazi Wembley zelaietan, herenegun arte. 2-0 nagusitu ziren frantziarrak Arsenal taldeko Nicolas Anelka jokariaren bi golekin. Howard Wilkinsonek selekzionatzaile kargutik kaleratu berri duten Glenn Hoddleren lekua bete zuen Ingalaterran. Ingalaterra-Frantzia norgehiagoka horretan, gainera, Didier Deschamps lapurtarrak Manuel Amorosoren errekorra berdindu zuen, Frantziako selekzioarekin 82. partidua jokaturik. Ingalaterrako Beckham eta Frantziako Petit dira argazkikoak.



OSCAR PIPKIN / EFE

Txirrindularitza

Jose Luis Rebollorentzat Mallorcako Itzulia


ONCE-Deutsche Bank taldeko Jose Luis Rebollok irabazi du aurtengo Mallorcako Itzulia. Atzoko etapa, azkena, Kelme Costa Blancako Francisco Cabello irabazi zuen —bigarren egin du sailkapen nagusian—. Rebollo txirrindulari ezezaguna zen orain arte eta ongi baliatu da horretaz usteka-bea emateko.

bazi zuen —bigarren egin du sailkapen nagusian—. Rebollo txirrindulari ezezaguna zen orain arte eta ongi baliatu da horretaz usteka-bea emateko.

Pala. Insausti eta Bel-darrainek Euskal Herriko txapelketako euren bigarren puntua lortu zuten atzo Deportivon, eta txapelketako finalerdietan ariko dira. 45-30 irabazi zuten Urkia-Torreren kontra —Insausti izan zen partiduko onena—. Bihar jokatu dute Iriondo-Rekaldek eta Daniel-Garridok.

Jokin Errasti. Azkoi-tiarrak jokatu du bihar, azkenean, Unanuerekin Tolosan, Tirapu-Armen-darizen kontra. Orain arteko lau partidak Tabernak jokatu ditu Errastiren ordez, baina osatu zaio eskuin eskua Errastiri. Bihar Tolosan irabazten duenak finalerdietan ari-zeko txartela lortuko du. Gaur, bestalde, Espainiako txapelketako partidua jokatu dute Etxaniz-Lasa eta Eugi-Santik Labriten. Ez dago ezer jokoan. Lehenengoak sailkatuta daude eta bigarrenek ez dute aukerarik.

Erremontea. Bi estelar bikain ziren jokoan atzo Galarretan. Elizalde eta Eizagirre nagusitu ziren lehenengoan (40-30) Altuna I.a-Aizpururen kontra —partidu bikaina osatu zuen Eizagirrek, beste behin—. Bigarrena, 40-32 irabazi zuten Altuna II.a-Etxabek, Zeberio II.a-Iriarteren kontra.




PAUL SAMUKA / AP

Tenisa

Agassi kalera lizunkeriak esateagatik

EBBBtako San Jose hiriko torneotik kaleratu egin zuen atzo epaileak Andre Agassi, Cecil Mamiiten kontra ari zela, lizunkeriak esateagatik. Bigarren seta galtzen ari zela haserretu zen bere buruarekin Agassi eta kanporatu egin zuen epaileak.



RON FREHM / AP

Saskibaloia

New York Knicksen lehenengo garaipena

Wizards taldearen kontrako partidua 101-88 irabazita, NBAko aurtengo denboraldiko bere lehenengo garaipena lortu zuen atzo New York Knicks taldeak.

Larry Johnson, Patrick Ewing eta Ward izan ziren New Yorkeko jokalaririk erabakigarrienak. Wizards taldean, berriz, 25 puntu egin zituen Richmond (argazkian).